

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoa: Indautxun kokatutako lokala da, taberna bat izateko egokituta dagoena. Lokalaren barruan, sukaldeko altzariak eta sukaldatzeko tresnak. Horrez gain, jendea eroso egoteko erositako altzariak esate baterako aulkiak, mahaiak, mantelak, mahai-tresnak...



### Giza baliabideak:

Alde batetik, sukaldari nagusi bat edukiko dugu (Laida) eta honek laguntzaile bat edukiko du (Nekane), gauzak azkarrago egiteko.



Beste hirurak, zerbitzariak izango dira baina funtzio desberdinak izango dituzte. Lehenengoak, zerbitzaria izateaz aparte, administrazio kontuaz arduratuko da (Peio). Bigarrenak, zerbitzaria eta hornitzaileari eskaerak egiteaz arduratuko da (Irene). Eta hirugarrenak berriz, zerbitzaria izango da eta marketinaz arduratuko da (Laura).



Horretaz aparte, bakoitzak 4 hizkuntz ezberdin menperatzen ditu:

Nekane:Gaztelera,euskara, ingelesa, txinatarra, suediera eta portugesa.

Laura:Gaztelera,euskara, ingelesa, alemaniarra eta errusiera.

Peio:Gaztelera,euskara, ingelesa, arabiarra, japoniarra eta daniera.

Irene: Gaztelera, euskara, ingelesa, italiarra eta Swahili.

Laida: Gaztelera, euskara, ingelesa, hindi, txinatarra eta frantsesa.

Finantza-baliabideak: Banco Santanderri eskatu diogu mailegua gure negozioa aurre atera dadin. Mailegu honen xehetasunak hurrengoak dira:

- 2 urteko epea
- %2,5 eko interesa
- Irekiera komisorik gabe

